



San Joan, egun berezia

PROZESIOA ▶ San Joanekin batera, hainbat santu atera zituzten atzo Santa Mariatik; prozesioa egin zuten herriko kaleetan zehar

PARTAIDEAK ▶ Eskopetarien, musikarien eta bordondantzarien egun handia izan zen atzokoa; batera jardun zuten egun osoan ▶ 4-5



‘Aurreskua’. Arrameleko San Joan kaperan arrats otoitzetan parte hartu ondoren, Zumardi Handira joan ziren udalbatza. Musika Banda, eskopetariak eta bordondantzariak ohiturazko *Aurreskua* egiteko. L. MONTES



Udal korporazioa. San Joan eguneko prozesioan hartu zuen parte udal korporazioak; Musika Bandaren aurretik zihoan. **IRATXE ETXEBESTE**



Eskopetariak. Trianguloan bildu ziren atzo eguerdian eskopetarien hamabi konpainiatako kideak udal korporazioa agurtzeko. LEIRE MONTES

LEITZA ▶

Mobilizazioa egingo dute bihar euskal ikurren alde

Bai Euskal Herriari-k
deituta, 19:00etan ▶ 7

[illegible]

TOLOSALDEA ► SAN JOAN EGUNA

Urteko gau motzena pasata, jai giroan igaro dute hainbat herritan San Joan eguna

Abaltzisketako plater tiraketan Josu Zubizarreta gailendu zen; Belauntzan bertsolariak eta pilota partidak izan ziren eta Anoetan jubilatuen bazkaria



Larraitzeko Sagastiberri zelaian egin zuten atzo goizean II. Plater lehiaketa; 20 lagun inguruk hartu zuen parte. O. ESKITXABEL



Estanko tabernan egin zuten hamaiketako herriko jubilatuek. O. ESKITXABEL



Belauntzan, jende ugari izan zen Aizmendi eta Telleriaren bertsotxo saioan. D. GIBELALDE

O. ESKITXABEL - D. GIBELALDE

Bezperak San Joan egunari lekukoa eman eta kalera irten zen jendea festa gosez. Izan ere, goizetik iluntzera arte ekitaldi ugari egin zituzten atzo hainbat herritan.

Ekainaren 23a gaurik motzena duen eguna omen da; hori baieztatu dezakete Abaltzisketako gazteek. Izan ere, atzo goizean egin zen II. Plater tiraketan gaupasa eginda joan ziren hainbat lagun lehiaketara. Konturatzeko eguna iritsi zitzaizaien, nonbait.

Larraitzeko bidean dagoen Sagastiberri zelaian egin zuten plater tiraketa lehiaketa. 11:30ak aldera bildu ziren parte-hartzaileak: ehiztariak eta gizonezkoak, guztiak. 20 lagun inguruk hartu zuen parte.

Lauko taldetan hamabosna tiro bota zituen bakoitzak; plater gehien jo zituenak irabazi zuten: Larraitz-gain tabernako Josu Zubizarretak. Hamabostetik hamalau jo zituen. Bigarren postuan, Lontxo Otamendi, iazko irabazlea, eta Haritz Garmendia sailkatu ziren; 13 eta 12 plater jo zituzten, hurrenez hurren.

Herrian bertan ere ekitaldi ugari izan ziren. Goizean, meza nagusiaren ondoren, hamaiketako egin zuten jubilatuek Estanko tabernan apaizaren konpainian. Arratsaldean, jende ugari bildu zen pilotalekuan, pilota partidak ikusteko asmoz. Jubenilen eta afizionatuen partidak jokatu ziren.

Gaur ume jolasak izango dira arratsaldean gaztetxoentzako entretenimendurako. Ondoren, txokolatada izango da, trikiti



Belauntzako herritarren eskulan erakusketa ikusgai dago. D. GIBELALDE

doinuek alaituta. Gauean herri-tarrak mahaiaren bueltan bilduko dira herri afarian.

Bertsolariak Belauntzan

Belauntzako jai ofizialetan ere izan ziren ekitaldi ugari. San Joanen omenezko mezaren ondoren, txistulariak izan ziren. Herriko tabernan, hamaiketakoa izan zen hurbildu ziren guztientzat. Mokadutxoa egin ondoren, Joxe Aizmendi eta Milán Telleria bertsolariek eguerdi partea alaituz saio umoretsua eskaini zuten.

Era berean, goizean herritarren eskulan erakusketa polita izan zen ikusgai Kultur Etxean. Urtean zehar eskularen ikas-taroan aritu diren herritarrek ipinitako hainbat lan izan ziren, eta, gaur eta bihar ere zabalik izango da erakusketa. Besteak beste, eraberritutako koadroak, margoak, kakoratz-lanak... jarri dituzte.

Arratsaldean, frontoian pilota partida izan zen; Retegi II.ak eta Oteizak Beloso eta Jauregi-

ren aurka neurtu zituzten indarrak. Partida amaituta, Soroza-bal eta Telleria bertsolariak izan ziren berriz.

Gaurkoan mus eta puntu txapelketa jokatu da eguerdian; arratsaldean, haur jolasak, pailazoak eta Eriz magoaren ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango da. Eguraldi ona eginez gero plazan egingo da, bestela frontoian. Gauean herri afaria izango da tabernan, Oskar Estanga eta Jaione Olazabalen *Berriketan* emanaldia-rekin batera.

Bestalde, gaur jai alternatiboetako txupinazioa izango da 21:00etan, eta ondoren afaria frontoian edo Gaztetxearen parean. Afariaren ondoren, txingara eta toka txapelketa jokatuko dute.

Anoetan, urtero San Joan egunean egin ohi duten bazkarian bildu ziren jubilatutak. Ehun lagun inguru izan ziren Bentaledea jatetxean; Franziska Aizpuru eta Juliana Arsuaga herriko adinduenak omendu zituzten.



Omenduak alkatearen eskutik jaso zituzten opariak. O. ESKITXABEL

LEITZA ▶ SAN JOAN BEZPERA

Euri arriskuari aurre eginez, sua jaun eta jabe

Leitzan eta Areson suaren ondoan afaria egin zuten San Joan bezpera zela-eta



Jende ugari bildu zen San Joan bezperako afarian. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

San Juan bezperako gauari, ohi denez mahaiaren inguruan eman zitzaion hasiera Leitzaldean. Areson, hainbat ume eta haien guraso plazan bertan elkartu ziren afaritarak.

Leitzan afalondan biztu zu-

ten sua eta berehalakoan ikuskizun berezia izan zen, sortzez Ekuadorrekoak diren herritarrak, *Intirraini* (San Joan dantza) izeneko dantza egin baitzuten, beren jatzera eta musika tresnekin joz. Han eta hemen ere festa gaua izaki berdentzabartekoa.

ALEGIA ▶ SAN JOAN BEZPERA

Plazan 'Bordondantza' izan zen bezperan

Txintxarri abesbatzak, herriko dantzari eta txistulariek batera eskaini zuten emanaldia



Suaren aurretik Bordondantza abestu eta dantzatu zuten. HITZA

O. ESKITXABEL

Plazaren inguruan bilduta, *Bordondantza* entzun eta ikusi ahal izan zuten herritarrek Txintxarri abesbatzak, dantzariak eta txistulariek batera

eskainitako emanaldian. Eta herriko apaizaren bedeinkazioaren ondoren sua pizteari ekin zion herriko alkateak. Suak altuera handia hartu zuen; berotasuna berehala nagusitu zen plazan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion Klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DY: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerbitzu: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarrak Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Morant R. Zabalarreta 1 (Tolosa). 67 38 49. Gimeno A, Elbarren 52 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

VENTA BELAUNTZA
ONDO PASA SANJOANAK!

Leitzako errepidea, 21
BELAUNTZA

Tel.: 943 67 28 28

TOLOSA ▶ SAN JOAN EGUNA

Burrunbaren doinuak

Koloretsua, zalapartatsua, alai eta tradizio handikoa izan zen herriko festen egun handia; udalbatza, eskopetariak, Musika Banda, txistulariak eta bordondantzariak kalez kale aritu ziren goizetik gauera



Hamabi eskopetari konpainiek alardea egin zuten eguerdian Trianguloan, Kabi Alaiak Kile Cea alardearen kapitainaren aginduetara. LEIRE MONTES

EGITARAUUA ▶ GAUR

ABALTZISKETA
16:30. Ume jolasak herriko gazteboiztal. Jolasak amaitu ondoren, bokolatada eta trikibia.
20:30. Herri afaria. Ondoren, erromeria Ekabe anaiekin.
Atsedernaldian. Txernikume harrapaketa pilotalekuan.
17:00. Ondoren, zaldi karrera.
18:30. Muga eta Otaegi azkolariak herriko plazan.
22:30. Izer eta Alabier musikaren emanaldia herriko plazan.

BELAUNTZA (EGITARAU OFIZIALA)
12:00-14:00. Eskulan erakusketak Kultur Etxean.
13:00. Mus eta punttu txapelketa.
16:30. Haur jolasak palazoekin alaiturik eta Eriz magna.
21:00. Herri afaria, Oskar Estanga eta Jaione Olazabal musikaren *Berriketan* emanaldiekin batera.
Ondoren. Pagadi anakak trikilarik goizaldera arte.

BELAUNTZA (JAI ALTERNATIBOAK)

21:00. Jaien hasierako tupinazoa eta ondoren herri afaria. Afalostearen bingia eta toka txapelketa.
TOLOSA
11:00. Goizez eta arratsaldez (11:00-13:30 eta 16:00-19:30), haur jaiakdia, Sortzez Garbia plazan; garbilo, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar...
17:00. Graffiti lehiaketa,

Foruen plazan (Trianguloa) gazteboiztal.
17:30. Erakloa eta buruhandia, Tolosako Dultzaineroekin, Plaza Berriak aterata.
18:00. Haur jaiakdia zeren-plazan; xenenak eta zaldibak.
23:00. Iraunkorrek baranga ibiliko da kalez kale herria alaitzen.
23:00. Fronton kafetegian Blues kontzertua: Naco Gofri.
24:00. Plaza Berrian Lobo Electrico eta Kuria taldeen emanaldia. Ondoren, DJ Bull.

I ETXEBESTE- L. MONTES

Eguna bezain dizdiratsua izan zen jaiak. Eguraldi apartak eta usadioak bultzatuta, herriar askok hartu zuen parte, atzo, San Joan eguneko ospakizuntan. Koloretsua, zalapartatsua, alai eta tradizio handikoa izan zen herriko festen egun handia.

Goizean goizetik ekin zioten egunari herriarrek. Tolosako eta leizaldeko txistulariek *Albate soinuak* eta *San Joan zortzikoa* joz esnatu zituzten udal agintariak. Eguna berezia izango zela gogoratu nahi zioten herriar.

Eskopetariak ere 08:30ak aldera hasi ziren elkartzen. Natriak kendu ordutik irratiz ziztaten alardearen ordutia. Arin-arin abiatu ziren, ondoren, izarrez betetako kaleetan barrena. Eta 11:00etarako Plaza Zaharra eta Santa Maria aurrean ziren, zain, meza nagusia amaitu eta parrokiatik prozesioa noiz itergo.

Santuak sorbaldan hartuta abiatu ziren lehendabiziko herriarrek. San Joan herriko patroari harrera berezia egin zioten bordondantzariak, eskopetariak eta herriarrek. Apatiak, udal korporazioak eta Musika Bandak iten zuten prozesioa. Herriarrek lagunduta zeharkatu zituzten Alde Zaharreko kaleak.

Santa Mariara itzultzean, eskopetariaren hamabi konpainiek salba bana joz agurtu zuten prozesioa. Eta Triangulo plazara abiatu ziren, txirribitu eta danbor hotzen artean, alkateak eta zinegotziak agurtuta. Koloretu eta jendetu ikusten zen Triangulo plaza Kultur Etxeko baldintzietan. Eta burrunbak baz betetrik. Bana bana, hamabi konpainiek bina salba eskaini zituzten alkateari. Burrunbaren indartaren arabera egiten zuten txalo herriarrek. Salbak aldi berean jo zituzten eskopetariak txalo zaparrada huzegoa jaso zuten, besteak ere txaloak izan zituzten opari, baina irribarre eta adar jotze artean. Hamabi konpainien alardearekin dar-dar egin



Udalbatza. Santa Mariatik abiatu zen prozesioa eta Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituzten. Argazkian, udalbatza, Solana kaletik Korreo kalera sartzen; alboetan, jendea, adi. LEIRE MONTES



San Joan. Elizatik akenia iristen izan zen San Joan patroaren irudia. Harro eraman zuten herriarrek sorbaldan gainean. Atzean, meza ospatu zuten apaizak, ladan. LEIRE MONTES



Aurrekua. Zerbait neska lotsatu egin ziren, baina azkenean onartu egin zuten bordondantzarien gonbila. Guztiek batera dantzatu zituzten *Fandangoa* eta *Arim-aria*. WAITE ETXEBESTE



Bordondantzariak. Hogeitik gora bordondantzari aritu ziren atzoko egunean. Prozesioan San Joan patroaren irudia lagundu zuten. Argazkian, bordondantzari taldea, dantza saioa eskaini ondoren, Korreo kalera sartzen. LEIRE MONTES

Alkatearen agurra

Jokin Bildarratz alkateak ezustean harrapatu zituen atzo herriarrek; Trianguloaren erdian 'Agurra' dantztatu zien guztiei

I. E. - L. M.

Ez oraingoz ez du kargua uzteko asmoirik. Hori ez da atzo Jokin Bildarratz alkateak eman zuen sorpresa.

Ezustean harrapatu zituen herriarrek Trianguloan, Kultur Etxeko baldintzietan jaitu eta plaza erdian jarri zenean. Eta aho zabalki utzi zituzten txistularien doinuak kapa gainetik kendu eta *Agurra* dantzatzeko hasi zenean.

«Udaberri taldekoek komentatu egin ziduten antzina alkateak dantza egiten zuela San Joan egunean, eta ea ni animatuko nintzen. Proposamenak



Jokin Bildarratz alkatea, agurra dantzatzeko, Trianguloan. WAITE ETXEBESTE

ezustean harrapatu ninduen hasiera batean, baina gustura eman nuen balazkia. Eta lehenengo gaude. Zer edo zer egin dugu, ezta?», adierazi zion goiz Jokin Bildarratz alkateak.

Udaberri Dantzari Taldekoek egin zituzten proposamena. Eta hortxe zituzten, atzean, irribarretu, alkatearen jardunari adi-adi jarraitzen. «Ako emte-atu al dudat? Puff! Ikingo bazenutela», zioen, serio-serio. Atzoko egunerako asko prestatu dela ziurtatu du behin eta berriro. Herriarren txalo zaparrada handia jaso zuen, behintzat. «Hurrengo urtean ere dantzatu al du?», galdetu du alkatearen jarduna jarraitu duen emakumezko batek. Hori buruz ezer ez dio alkateak. Beste ezustekoren bat prestatutik izango al du, akaso?

YULEN ondo pasa sanjoanetan!
Janaridenda
Alta Larramendi, 3 • 20400 TOLOSA

elketa
ZABALDU BERRIA
Mahaiak erreserbatzeko deitu
943 65 39 92
607 991 224

ALEGIAN
Emkume bat behar da etxeko lenak egiteko. Odulegia: 10:30etik 14:30era
Tolosa 943 65 30 34
(emakumeen deia)

ROLDAN JIMENO ▶ HISTORIALARIA

«Tolosar batentzat oso lan interesgarria da hau»

‘Tolosa Bordondantzaren ikuspegitik’ liburuak «herriaren historia biltzen» duela dio nafarrak; aitaren lana berrikusi du Aranzadi eta Udaberriekin batera

JOXEMI SAIZAR

Duela bi urte hil zen Jose Maria Jimeno Jurio historialariaren *Tolosa Bordondantzaren ikuspegitik* liburuak aurkeztuko da gaur Tolosako Kultur Etxean. Egilearen seme Roldan Jimeno Aranguren lan honi buruz aritu da HITZAREKIN.

Nondik dator liburu hau argitaratzeko ideia?

Aitak bi artikulu txiki idatzi zituen *Bordondantzari buruz Dantzariak* aldizkarian, 1982-ko uztailaren eta urriaren, 22. eta 23. zenbakietan. Horiek liburuen aurrerapenak direla esan daiteke. Liburuak idatzita zuen, makinaz, orain, hil ondoren, argitaratzeko aukera izan da.

Nola iritsi zen aita *Bordondantzaren* gaira?

Miguel Angel Urmeneta aurrezki kutxako lehendakariak euskara eta kulturaren alde lan handia egin zuen. Liburutegi batzuk sortu zituen Iruñeko auzoetan eta aita liburuzain zen San Pedro auzoan, langilearen auzoa garai hartan. Hortik hasi zen artxibategietan miazten. Eta *Bordondantzari* buruzko informazioa Elizbarrutiko Artxibategian aurkitu zuen. Gipuzkoa osoa Iruñeko Elizbarrutian sartzen zen. Prozesu guztiak Iruñean ebazten ziren. Eta horietako bat izan zen 1717an *Bordondantzari* buruzkoa.

Zer kontatzen da liburuan?

Prozesu oso mamitsua izan zen; xehetasun ugari ditu. Aitak ikertu zuen eta *Bordondantzari* buruzko liburuak egin zuen, baina Tolosako historiareri zati handi bat ere agertzen da. XVIII. mendeko Tolosaren deskribapen batekin hasten da. Erdi Aroko hirigintzatik abiatuta, Errenazimenduak eta Barrokoak zer ekarri zuen azaltzen du, hiria nola bilakatu zen. *Bordondantzarekin* zerikusia duten eszenatokiak aipatzen ditu: Beotibar, Arramele, Ige-



Roldan Jimenok San Joan egunaz gozatzeko aukera izan zuen atzo Tolosan. IRATXE ETXEBESTE

rondo... Alderdi soziologikoak ere aipatzen ditu. Gaur egun hori arrunta da, baina orduan ez. Garai hartako mailaketa soziala ere agertzen du: jauntxoak, apaizak, behartsuak, kanpotarrak... Hizkuntza ere aztertzen du. Talde etniko baztertuak agertzen dira. Erakundeen alorra ere ondo jorratzen du. Udala nola dagoen egituratuta, Justizia nola antolatzen den... Arlo zibila aztertu ondoren, Elizaren antolakuntza deskribatzen du: apaizak, kabildoa, bikarioa... Adibidez, oso interesgarria da asilo eskubidearena. Justiziak kontra egiten bazuen, Elizak bazuen asilo eskubidea garai hartan eta Elizaren babesean Justiziak ezin zuen ezer egin.

1717ko gertaerak zein izan ziren?

Egunez egun deskribatzen ditu, xehetasun handiz. Eliza eta herriaren arteko epaiketa azaltzen du, parrokoak *Bordondantza* Santa Marian sar-

tzea debekatu zuelako. Deskribapen diakronikoa egin da. XVIII. mendeko dantzen elementuen izenak aipatzen ditu: tresnak, jantziak, musikariak, koreografia... Dantzaren krisia gertatu zen XIX. eta XX. mendeetan eta Udaberri Dantzari Taldeak berreskuratu eta berrindartu zuen Bordondantza.

Dantzari buruzko lan gehiago ba al ditut aitak?

70. hamarkadan hainbat dantza berreskuratu ziren. Aitak ikerketa lan ugari egin zuen artxibategietan. Nafarroako Erriberako paloteatuak, adibidez. Bera ez zen dantzaria. Hainbat testu, datu eta abar jaso zituen Trantsizio garaian. Folklorea berreskuratu zuen nortasuna berpizteko. Aitaren lanetik abiatu ziren talde asko. Oso lan interesgarriak ziren bertako dantzak berpizteko. Itxaropen horrekin ikusten zuen bere lana. XVIII. mendean, beste arte guztietan bezala, dantza barrokismo handienera iritsi

zen, modu barrokoenean, teatralizatuenean egiten ziren dantzak.

Ezagutzen al duzu Tolosako San Joan eguna eta Bordondantza?

Txikia nintzenean aitarekin-eta etorri izan nintzen askotan, baina orduan ikuspegi kritikorik ez nuen. Bere lanaren bidez zerbait ezagutu dut. Bere lanaren frogak zuzentzen aritu naiz Aranzadi eta Udaberriko lagunekin batera. Lanik handiena beraiek egin dute. Jose Mari Gorrotxategiren argazki asko daude liburuan. Meritu handia dute horrelako lana egiten dutelako argitaletxe profesionale-tatik kanpo.

Zer esango zenieke tolosarrei?

Tolosar batentzat oso lan interesgarria da hau arlo instituzionala, soziala, dantzarena, folklorikoa... biltzen dituelako. Herriaren historia txiki bat da, *Bordondantzaren* inguruan idatzia.

1717ko prozesua

1717ko San Joan egunean Pedro Joaquin Garmendia Santa Maria parrokiako parrokoak sarrera debekatu zien bordondantzariei, urte askotako ohitura hautsiz. Herriak eta alkateak aurre egin zion erabakiari eta prozesu bat antolatu zuten parrokoaren aurka. Epaiketa hartako dokumentazioan arakaturik, Jose Maria Jimeno Jurio historialari nafarrak *Tolosa Bordondantzaren ikuspegitik* liburuak idatzi zuen.

Bordondantzaren eta XVIII. mende arteko Tolosaren historiaren xehetasun ugari biltzen ditu. Aurkezpen soziologiko eta kulturala egiten du, egoera linguistikoa- ren berri emanez, besteak beste.

1717an galdutako ohitura 2001ean berreskuratu zen: bordondantzariak parrokan sartzen dira orain. ◀



Bordondantzariak. LEIRE MONTES

FITXA ▶

Gaia. Tolosa *Bordondantzaren ikuspegitik* liburuaren aurkezpena.

Egilea. Jose Maria Jimeno Jurio.

Argazkiak. Jose Mari Gorrotxategi.


Argitaratzaileak. Udaberri Dantzari Taldea eta Aranzadi Zientzia Elkarteak.

Babeslea. Tolosako Udala.

Eguna. Gaur.

Ordua. 20:00.

Tokia. Udaletxea.



TOLOSALDEKO HITZAK zozketatutako *Leidor Zinemaren* astebukaera honetan ‘LA JOVEN DE LA PERLA’ filma ikusteko bi sarreren irabazlea: JESUS LOIDI AGIRREZABALA (ANOETA)

PRESOAK ▶

Euskal presoen herriratzearen alde bilkurak daude deituta

Tolosako eskualdean nahiz Leitzaldean, hilabeteko azken ostiralero egiten dira

J. ASTIBIA

Gaur ostirala, hilabeteko azkenekoa izanik, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean herriz herri kontzentrazioak daude deituta ondorengo herritan eta ohikoak diren lekuetan: Tolosan, Lizartzan, Ibarran, Anoetan, Alegian, Amezketan, Ikaztegiatan, Villabonan eta Leitzan.

Etterat-etik jakitera eman dutenez kontzentrazioak eskualde osoan Leo Esteban tolosarra gogoan izanik burutuko badituzte ere, bai Tolosan eta bai Villabonan ere, bilkura bereziak egingen dira.

Leo gogoan

Tolosakoan Leo Esteban herritarra izanen dute gogoan bereziki, «stripua izan eta hamabost urtetara, sakabanaketak Leo eraman du» eta «Leo Esteban, maite zaitugul» adieraziz, ohiko leloarekin batera. Ekimen horrekin, euskal presoek eta hauen senide eta lagunak kontra Espainiako eta Frantziako Gobernuak ezarritako sakanaketa politikaren aurka salaketa egitea dute helburu 19:30ean Trianguloan burutuko den bilkuran.

Jakina denez, Leo Esteban tolosarra ekainaren 3an zendu zen, bere anaia Esteban preso bisitatetik, Puerto de Santa Mariatik zetozelela izandako istripuak eragin zizkion ondorio larrien kausaz. Izan ere, orduz geroztik hanka moztu eta beste 16 aldi izan ebakuntzak jasan izan baitzituen.

Bestalde, Villabonan, bertako herritarra den Lander Etxeberriaren «askatasuna eskatzeko dei ozena» egin du Etxerat elkarteak 20:00etarako, Iru Aldetan eta Aiztondoko herrietako biztanle guztiei luzatuta. Izan ere, Etxeberriak mugan entregatua izateko arriskua ekidin nahian —hurrengo astelehena— 25 egun daramatza gose greban, Draguignane ko kartzelan; bere kide Ramontxo Naveriok ere bide berari ekin dio azken egun hauetan.

LEITZA ▶ POLITIKA

Euskal ikurren aldeko manifestazioa egingen da bihar arratsaldean

Ikurren Legea delakoari erantzuteko deia egin du Nafarroa Garaiko mendialdeko Bai Euskal Herriari herri ekimenak



Leitzako udaldebako balkoian dauden ikurrak. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar, larunbat arratsaldean, eta plazatik abiatuz, 19:00etan, *Bai Euskal Herriari, Ikurrina gurea* lelopean Leitzan burutuko den manifestazioa joateko deia egin du Bai Euskal Herriari herri ekimenak.

HITZARI helarazi zaion oharrean adierazten denez, manifestazioaren deitzaileek, hots, Leitzan, Malerreka, Baztan, Bera eta Lesakako Bai Euskal Herriari herri ekimenek, «ikurrina zein kateen bandera gorria, Nafarroakoa, Euskal Herri osoko ikurrak» direla aldarrikatzen dute eta herritar orori dei egiten diete («ikur hauen defentsan aritzera, herrietako kale zein udaletan gureak diren ikurrak present egon daitezen»).

Bai Euskal Herriari herri ekimenak egin duen deialdi hau

«Euskal Herriaren aurkako eraso berri horren» erantzun modura deitu omen dute, zehazki Nafarroako Gobernuak «Nafarroako eraikuntza publiko orotatik Euskal Herriaren ikurra den ikurrina desagerrarazi nahi» duela argudiatuz; beren esanetan, horretarako «berriro ere herritarren eskubideak eta borondatea indarrez zantatu nahirik, Ikurren Legea delakoa» egin eta aplikatu nahi dituzte.

Ikurrina dela-eta sortarazi den egoera honen inguruan, Bai Euskal Herriari taldearen iritziz «ikurrina eta Nafarroako ikurra elkarren aurka jarri nahi» dituzte eta joko hori «maltzurkeriaz» pentsatu eta egindakoa dela gaineratu dute. Baina haien esanetan «bi ikurreek ere, bata zein besteak, Euskal Herria nazio» dela adierazten dute eta «Ikurren Legeari, herri modura erantzuteko garaia» heldu dela iritzi.

Atxikimenak

Ekimen honek zonaldeko hainbat elkarte, talde eta pertsonen atxikimenak jaso dituela adierazi dute oharrean bertan, besteak beste, Asier Olazola pilotaria, Berako Gure Txokoa elkarteak, Josu Goia hautetsia, Aurrera Kirol Elkarteak, Jon Abril hautetsia, Mikel Mindegia aizkolaria, Petti musikaria, Iñaki Perurena kirolaria, Donato Larretxea aizkolaria...

LEITZA ▶

Mendibil M.T.ak Piriniotara irteera antolatu du

Udako oporraldi aurretik, azken irteera antolatu du aste-buru honetarako Mendibil mendi taldeak. Piriniotara joan dira asteburua igarotzera eta Ayous mendia egitera. 2.288 metroko garaiera du, eta, hortaz, material egokia eramatea beharrezkoa da. Bihar 08:30ean aterako dira herriko plazatik, autoz joan direlarik. Ayouseko aterpean bertan egingen dute gaua.

VILLABONA ▶

Etxeberriaren entregari buruz batzarra 28an

Astelehenean, 20:00etan eta herriko plazan bertan, batzarra burutuko da, hain zuen ere Lander Etxeberria herriko presoaren entrega gerta daitekeen egunaren bezpera izanik, biharmunean herritar multzo bat, Espainiako eta Frantziako estatuen mugako hainbat puntutara abiatuko baita eta bidaiaren azken xehetasunak lotzeko xedez bildu behar dute.

ZIZUKIL ▶

Atxulondora irteera igandez 10:00etan

Atxulondora irteera antolatu dute iganderako. Pedro M^a Otaño plazatik abiatuko dira bertara joatekotan direnak, eta antolatzaileek 10:00etarako egin dute hitzordua.

BULDAIN ▶

Buldain
IMMOBILIARIA

Amazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34
mug.: 649 47 66 15
e-mail:
jmbuldain@eresmas.com

Berrobi. Hiru etxe unifamiliar adosatuak salgai. 160 m²-ko bizitza, garajea 50 m²-koa eta lorategia 40 m²-koa, 306.516,1 euro.

Gorriti. Etxe unifamiliar eraikitako. 1.500 m²-ko lurra eraikigarria salgai.

Leitza. Herriatik 10 km-tara, Leitzelarrean, borda eta txabola salgai, 8.500 m²-ko lur-eremuarekin. 90.151,81 euro.

Leitza. Pisu eta etxe bat salgai.

Leitza. Pisu bat alokatzen da herri erdian. 360 euro/H.

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitez harpidedun!

3 egun geratzen dira!

943 30 43 46

astegunetan
(08:30etik 20:30era)
larunbatetan
(09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko
hitza

hitza

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 25a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alizta, Alzotz, Ametzola, Anzola, Balaran, Berastegi, Elduain, Hernialde, Iruia, Iruia, Lami, Leizor, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurarlitzak
Kultura Saila

Eusko
Jaurarlitzak
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

beroa

22

hotzena

16

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

22

hotzena

16

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

22

hotzena

16

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

22

hotzena

16

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

22

hotzena

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Bihar, Betizu jatea Ugarten, 14:00etan.
Gaztelu. Nerea Herrarte ipuin kontalariaren saioa izango dute haurrek gaur udaletxean 18:30etik aurrera.

Tolosa. Gipuzkoako Batzar Nagusiak berreskuratu izanaren 25. urteurrena dela eta, aparteko batzarra izango da 11:00etan Gorosabel Zaharrean.

Tolosaldea. Presoen aldeko kontzentrazioak izango dira Tolosaldeko herrietan.

Villabona. Odol ematea. Villabonako osasun zentroan, 18:30etik aurrera.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Kultur Etxeko tailerretako ikasleen lanen erakusketa zabalik da Aranburu Jauregian.

Tolosa. Maria Carmen Gorbearen koadroak ikusgai Saikin tabernan. Gutzira 11 koadro dira. Hilaren amaiera arte dago zabalik.

Tolosa. Charo Berra pintore tolosarrak bere margolanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan hilaren amaiera arte.

SANJOANAK

Abaltzisketa. 16:30ean ume jolasak eta txokolatada. Herri afaria eta txerrikume harrapaketa pilotalekuan.

Belauntza. Eskulan erakusketa, mus eta punttu txapelketa eta haur jolasak. Herri afaria eta trikitaliak.

MUSIKA

Tolosa. Solstizio kontzertua eskainiko du Et Incarnatus orkestrak Mendikuten 20:00etan.

ZINEMA

Tolosa. La joven de la perla filma izango da asteburu honetan Leidorren. Gaur, 22:30ean. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean. Igandean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean izango da.

Animalien aurrean artistak

TOLOSA ▶ Sanjoanetako Errekortadoreen VIII. Saria banatu zuten atzo Tolosako zezen plazan; bertako eta kanpoko artistak gurturatu ziren



Parte hartzaile bat eratzuna adarrean jarri nahian. G. AZKUE

ERREDAKZIOA

Tolosako sanjoanetan zezenek leku garrantzitsua betetzen dute egitarauan. Baina zezenekin zerikusia duen beste ekintza batek ere jende ugari biltzen du Tolosako zezen-plazan: errekortariak. Atzo izan zen sanjoanetako zortzigarren saria.

Arratsaldean abiatu ziren Triangulo plazatik dultzaineroak zezen-plazarako bidean, eta 18:00ak inguruan eman zitzaion hasiera ikuskizunari. Errekortariak, zezen-plazaren bueltan desfilea egin zuten lanean hasi aurretik.

Aurten, gainera, Tolosako sariaz gain, Errekortarien Euskadiko V. Txapelketaren finala jokatu dute.

Tolosako parte-hartzaileez gain, Lodosatik, Mendabiatik, Bergaratik, Zaragozatik, Zangotatik, Alfaretatik, Lizarratik eta Urretxutik etorritako errekortariak izan ziren zezen-plazan.

Dultzaineroek eta txarangak alaitu zuten arratsaldea. Lehe-

nik eta behin, bikote bakoitzak erreorte artistikoa egin behar izan zuen; lan honetarako minutu bat izan zuen bikoteak. Errekorte artistikoa erakustaldi modukoa izan zen, ikusleek bikotea ezagutzeko, eta, bikoteak behiaren mugimenduak aztertzeko.

Minutu horren ondoren hasi zen benetako lana parte-hartzaileentzat: eratzunak behiaren adarrean sartzea; hiru minutu zuen bikote bakoitzak.

Esponcedako (Nafarroa) Jesus Estenagaren behiak plaza-ratu zituzten atzo.

Irabazleak hautatzeko lana lau epaimahaikideren gain gelditu zen: Juan Luis Bikuña, ETBko aurkezlea, Javier Arreseigor tolosarra, Miguel Telleria Tolosako zezen-plazako lehendakaria eta Koldo Larrea zezen kritikoa bildu ziren erabakiak hartzeko.

Odol hotza eta ausardia erakutsi zuten parte-hartzaileek atzo arratsaldean, animalia-aren ondo-ondotik pasatzen baitziren; gutxi egin dezaketen lana burutu zuten atzo.

ZORION AGURRAK ▶



Zuhara Telletxea (Amezketak).
Gaur 2 urte; epa, epa, epa, beltzaren maite! Muxu asko zure guraso, ahizpa Ainitze eta anaia Enaitzek.



URTE ASKOAN
Elisabeth Artola (Tolosa).
Gaur 2 urte, zorionak eta muxu bat ebekoaren partetik.



URTE ASKOAN
Ane Urrestarazu (Altzo).
Bere lagunak, Ane eta Lorenaren partetik.



URTE ASKOAN
Garazi Otaegi (Asteasu). Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat Berastegiko familiaren partetik.



ZORIONAK
Mari eta Olaia. Gaur eta etzi zuen urtebetetzea. Ondo pasatu. Aitaboa eta Haizearen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!

DENDA HAUEN Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagurre Ileaipaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Berezia
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarbizar Oinetakoak
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arrete Mertzaria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihokak
- Kanikak arropa denda

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
(Martxoetik ekainera)
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!
*Promozio hau ez zaie beste beherapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.